



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko otsailaren 14a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 10-22/LEY-00020. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburren Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- 10-23/LEY-00001. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (10. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-23/MOC-00018. Mozia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da gastu militarra gutxitu dezan eta diru hori gerraren ondorioak leuntzeko eta gizarte zerbitzu publikoak (osasungintza, irakaskuntza eta abar) sustatzeko erabil dezan. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (11. or.).
- 10-23/MOC-00019. Mozia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuak Eskubide Sozialen Ministerioaren bitartez onetsi duen 100 euroko hilabeteko laguntza –3 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familientzako– zabaldu dezan. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (12. or.).
- 10-23/MOC-00020. Mozia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko. Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztu du (13. or.).
- 10-19/MOC-00102. Mozia. Horren bidez, Kultura eta Kirol Departamentua premiatzen da azterlan bat egin dezan, Nafarroako Futbol Federazioarekin lankidetzan, aztertze aldera kirol eta aisia instalazioei buruzko araudia betetzen ote den. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea (14. or.).
- 10-22/MOC-00108. Mozia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan irizpide geografikoa ken dezan jaioberrien eta haurren ospitalearteko lekualdaketatarako. Osasun Batzordean izapidetzea (14. or.).
- 10-23/MOC-00012. Mozia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarrai dezan LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko Kattalingune zerbitzua ematen jarrai dezan, 2022ko abendura arteko kalitate-parametroak mantenduz edo hobetuz, horretarako behar diren giza baliabide eta baliabide ekonomikoekin hornituta. Osoko Bilkuran izapidetzea (15. or.).

—10-23/MOC-00010. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen da Fitero-Cintruénigo-Corella-Castejón-Iruña autobus-zerbitzua berma dezan, egunean joan-etorria egiteko moduan eta hiru ordutegitan, 06:30ean hasita. Mozioa erretiratzea (15. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—10-23/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (16. or.).

—10-23/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamena. Zuzenketak aurkezteko epea (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00020. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburren Foru Lege proiektua.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburren Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

EH EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«a) Araztea eta sustatzea elikagaiak zuzenean, edo gehienez ere bitartekari batez, merkaturatu daitezela Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatagietako titularrak diren lehen mailako ekoizleen edo haien asoziazio-elkarteen eta azken kontsumitzaileen artean».

Zioak: Testuaren idazketa hobetu da harremana lehen mailako ekoizleen eta azken kontsumitzaileen artean izanen dela ezarrita.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«a) Araztea eta sustatzea elikagaiak zuzenean, edo gehienez ere bitartekari batez, merkaturatu daitezela Nafarroako nekazaritza-ustiatagietako

titularren edo horiek bazkidetutako ekoizle-elkarteen eta azken kontsumitzaileen artean».

Zioak: Nafarroako nekazaritza-ustiatagi gehienak ekoizle-elkarteen baten parte dira, eta horien bidez merkaturatzen dituzte haien produktuak. Akatsa litzateke kooperatibak lege honen xedetik kanpo uztea; izan ere, sektorean garrantzi ekonomiko handia izan dute kooperatibek, eta horien bidez lan egiteko tradizioa egon da beti nekazaritzako elikagaien sektorean. Lege-aurreproiektuaren atarikoan ezarritakoarekin bat, araudi honen xedea da “nekazari eta abeltzainen errenta hobetzea eta landa-ekonomia bultzatzea”, eta, halaber, 2. artikuluko osoan helburuak ezartzen dira, baita aurreproiektu osoan zehar ere. Kontuan hartuta nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizleen % 90 baino gehiagok kooperatibetan lan egiten dutela, kooperatibak sartu ezean, ez litzateke hobetuko landa-ekonomiaren hobekuntza eta sustapen hau, edo tokiko produktuen kontsumoa bultzatuko, lehen mailako kooperatiben produktuak % 100 tokikoak baitira.

3. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«b) Elikagaien kantitate txikiak saltzeko segurtasun- eta higiene-baldintzak ezartzea, bat etorrita Europar Batasuneko, Espainiako eta autonomia-erkidegoko legeetan ezarritakoekin».

Zioak: Ezin zaie garrantzirik kendu elikagaien segurtasunari eta osasunari. Lege honekin, tokiko produktuen merkaturatzea sustatu nahi da, baina horrek ez du eragin behar ezta menturatu ere, tokiko produktuak ez hain osasungarritzat jo ahal izatea gainerako elikagaiak baino segurtasun-

betekizun ahulagoak izate hutsagatik; hain zuzen, horrela araudi honek bilatzen duen jarreraren kontrakoa lortuko litzateke.

4. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikuluko a) eta b) letrak aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«a) Tamaina txikiko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei laguntzea, haien bideragarritasuna hobetuta, lehiakorragoak bihurtuta, haien dibertsifikazio ekonomikoa sustatuta, eta gazteak sektorean sar daitezen ahalbidetuta.

b) Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien titularrek errenta duinak izan ditzaten erdiestea eta haien produktuek balio erantsia izan dezaten lortzea, bai eta bidezko prezioak ere, bai ekoizlearentzat, bai kontsumitzailearentzat».

Zioak: Idazketa hobetzen da, ustiategiak “nekazaritzakoak eta abeltzaintzakoak” direla zehaztuta, alde batera utzita Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan abereenak ere sartuta egotea.

5. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«a) Nekazaritzako ustiategiei laguntzea, haien bideragarritasuna hobetuta, lehiakorragoak bihurtuta, haien dibertsifikazio ekonomikoa sustatuta, eta gazteak sektorean sar daitezen ahalbidetuta».

Zioak: Aurreproiektu honetan ezarritako xede, helburu eta atarikoetan ezartzen den asmoa da kalitatezko, sasoi eta katean ahalik eta bitartekari gutxienekin merkaturatutako tokiko produktuen kontsumoa bultzatzea, modu horretan nekazaritzako elikagaien ustiategien eta landa-eremuen errentagarritasuna hobetze aldera; alabaina, horrek ez du inolako zerikusirik ustiategien tamainarekin. Are gehiago, ustiategi gehienak tamaina ertainekoak dira; beraz, tamaina txikiko ustiategiei baino ez bazaie lagundu nahi, kanpoan utziko dira Nafarroako nekazaritzako elikagaien ekoizle andana, zeinek, era berean, tokiko produktuak ekoizten baitituzte, kalitatez, sasoi eta landa-eremuaren garapenari ekarpena eginez.

6. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikuluko c) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«c) Produktuak jatorrian zuzenean aprobetxatzea ahalbidetzea, horrela elikagai horien lekualdaketa-, bitartekotza- eta merkaturatze-gastuak murriztuz, nekazariak eta abeltzainak kudeatutako merkaturatze-zirkuitu laburrak eta zuzenak sustatzearen bidez, aldi berean erantzuna eman ez eskaera sozial gero eta handiagoa duten tokiko produktuei, jatorri ezagunekoei eta sasoiakoei. Hain zuzen, zirkuitu horiek azterna ekologiko txikiagoa dute, gizartean ongi baloratuta eta goraldian dagoen merkatu batez arduratzen dira, eta kate osoari, hala ekoizpen-eragileei nola kontsumitzaileei, bidezko prezioak eskaintzen dizkiete».

Zioak: Apartatu honen idazketa hobetzen da, aintzat hartzen baitira merkaturatze-zirkuitu laburrek ematen dituzten beste alderdi batzuk.

7. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. apartatuko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«a) Nekazaritzako elikagaien ekoizlea: nekazariak, abeltzainak eta haien elkarteak —haien forma juridikoa edozein dela ere—, nekazaritzako beren elikagaiak (freskoak edo eraldatuak) merkaturatzeko kanal labor baten bidez saltzen dituztenak».

Zioak: Nafarroako nekazaritzako elikagaien % 90 baino gehiago kooperatiba formulako elkartetan bilduta daude. Elkarrekin ez dira beti izaten ustiategiaren titularrak; hortaz, ekoizle-elkartea ustiategiaren titularra izateko betekizuna definitzearen barruan sartzeak kooperatibetan elkartuta dauden ekoizleen % 90 hori kanpoan uztea ekarriko luke; izan ere, Nafarroako Kooperatiben Legeak nahitaezkoztat ezartzen du bazkideek ekoiztutako % 100 ematea kooperatibari.

8. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. apartatuko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«b) Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburra: nekazaritzako elikagaien ekoizleak nekazaritzako elikagaiak saltzea edo hornitzea azken kontsumitzaileari, zuzenean edo, gehienez ere, bitartekari batez. Zuzeneko salmentaren bidez edo hurbileko salmentaren bidez egin ahal izanen da, eta nekazaritzako elikagaien ekoizleei lotuta dago, zeinek lehiatzeko zailtasunak izan baititzakete merkaturatzeko kanal arruntetan».

Zioak: Lege honek tokiko produktuen kontsumoa sustatu nahi du, eta tokiko produktu horiek ustiategien tamaina edozein dela ere ekoizten dira.

9. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. apartatuko o) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«o) Zuzeneko salmenta: nekazariak ekoiztutako nekazaritzako elikagaiak (lehen mailakoak edo eraldatuak) azken kontsumitzaileari merkaturatzea bitartekaririk esku-hartzen ez duela, 4. artikuluan ezarritako baldintzak beteta. Zuzeneko salmenta lotuta dago, bereziki, nekazaritza-ustiategitik edo eremu geografiko jakin bateko ekoizpen-lekutik gertu egotearekin, non azken kontsumitzaileek zuzenean edo bide telematikoz eskuratzen baitute nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren zati bat, nekazaritzako elikagaien ekoizlearekin harremanetan jarrita».

Zioak: Zuzeneko salmentaren bereizgarria da bitartekaririk ez egotea; hortaz, era berean esan daiteke zuzeneko salmenta dela azken kontsumitzaileak zuzeneko salmenta harremana edukitzea (fisikoa edo ekoizleari online erosita). Digitalizazioaren aroan, zuzeneko salmenta ekoizlearen eta eroslearen arteko kontaktu fisikoaren bidez gertatzen denera mugatzeak errenta-galerak ekar diezazkieke ustiategi txiki horiei.

10. ZUZENKETA

3. artikuluko 1. apartatuari p) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«p) Nekazaritzako elikagaien kantitate txikiak: nekazaritzako elikagaien ekoizleek urtean gehienez egin eta merkaturatu ditzaketen produktu eraldatuak kopuru maximoak, zeinak dekretu honen babesean garatzen diren gidetan zehaztuko baitira».

Zioak: Beharrezkoa da definizio hau gehitzea, 6. artikulua ezartzen baitu nekazaritzako elika-

gaien kantitate txikiak merkaturatzeko osasun eta higiene arloko jardunbide egokien gidak egin behar direla.

11. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4.1. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«a) Nekazaritzako elikagaien ekoizleak zuzenean saldu beharko dio azken kontsumitzaileari, aurrez aurre edo Internet bidez, biak bertan direla eta bitartekarik gabe».

Zioak: Zuzeneko salmentaren definizioari buruz 3. artikuluko 1. apartatuko o) letrari aurkeztutako zuzenketarekin koherentzia izateko.

12. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluko 1. puntuko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«a) Nekazaritzako elikagaien ekoizleak zuzenean saldu beharko dio azken kontsumitzaileari, aurrez aurre edo telefono bidez, mezu elektronikoa, webgune edo salmenta makina baten bidez, betiere bitartekarik gabe».

Zioak: Argi dago zuzeneko salmenta egiteko modu desberdin eta askotarikoak daudela, eta lege hau ezin da horien bazter gelditu bi aldeak aurrez aurre egotearen aitzakia baliatuta.

13. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluko 1. puntuko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«b) Nekazaritzako elikagaien ekoizlearen nekazaritza-ustiategiak inskribatuta egon beharko du Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritako erregistroan».

Zioak: Edozein nekazaritza-ustiategik parte hartu ahal izatea nahi dugu, tamaina edozein dela ere. Proiektu osoan zehar argi zehaztutako xedea da gertuko, sasoiko eta kalitatezko tokiko produktuen kontsumoa sustatzea. Ezaugarrietako bakar

batek ere ez du eragozten nekazaritza-ustiategi batek 5 edo 10 NLU baino gehiago edukitzea. Ustiategietan landu eta ekoizten diren produktuek kalitate-betekizun batzuk eduki behar dituzte, eta haien merkaturatzeak gertukoa izan behar du, baina ez du tamainari lotuta egon behar, horrek berekin ekarriko lukeelako kanpoan uztea Nafarroako landa-eremuetan ustiategiak dituzten nekazari eta abeltzainetako asko.

14. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluko 1. puntuko c) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«c) Nekazaritzako elikagaien ekoizleak inskribatuta egon beharko du nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistroan, 8. artikuluan aipatzen den moduan».

Zioak: Definizioetan arautzen denez zer diren nekazaritzako elikagaiak, eta definizio horretan ekoizleen elkarrekin sartuta daudenez, erregistroak jaso beharko luke ustiategien titularrak ez diren elkarrekin inskribatzeko aukera.

15. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4.1. artikuluko d) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«d) Salmenta, ahal dela, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategian bertan eginen da, baina egin ahal izanen da, era berean, udal-merkatuetan eta azoka txikietan, ustiategiari lotutako landa-turismo-ko edo nekazaritza-turismo-ko ostatueta, kontsumitzailearen etxean, salmenta elektronikoaren bidez ekoizlearen webgune batean edo baimendutako beste edozein lekutan, iraunkorra ez bada».

Zioak: Zuzeneko salmentari buruz aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin koherentzia izateko.

16. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluko 1. puntuko d) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«d) Salmenta, ahal dela, nekazaritza-ustiategian bertan eginen da, baina egin ahal izanen da, era berean, udal-merkatuetan eta azoka txikietan, ustiategiaren titularraren jabetzako landa-turismo-ko edo nekazaritza-turismo-ko ostatueta, merkataritza elektronikoaren bidez edo kontsumitzailearen etxean».

nen da, era berean, udal-merkatuetan eta azoka txikietan, ustiategiaren titularraren jabetzako landa-turismo-ko edo nekazaritza-turismo-ko ostatueta, merkataritza elektronikoaren bidez edo kontsumitzailearen etxean».

Zioak: Argiago utzi behar da salmenta titularraren jabetzakoak diren turismo-ko edo nekazaritza-turismo-ko ostatueta egin behar dela, eta, bestalde, merkataritza elektroniko-ko ere aipatu behar da. Gainera, ostatu publikoak erabili beharrean pribatuak erabiltzen badira —nekazaritza-turismo-ko ostatuak edo beste batzuk—, nekazaritzako elikagaien ekoizlearen jabetzakoak ez direnak, beste eragile bat sartzen da tartean merkaturatze kanalean; horrela, kanal laburtzat hartu beharko litzateke, eta ez zuzeneko salmentatzat; beraz, kasu horretan, 4. artikuluko 2. apartatuarekin bat arautu beharko litzateke.

17. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. puntuko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«b) Nekazaritzako elikagaien ekoizlearen nekazaritza-ustiategiak inskribatuta egon beharko du Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritako erregistroan».

Zioak: Edozein nekazaritza-ustiategik parte hartu ahal izatea nahi dugu, tamaina edozein dela ere. Proiektu osoan zehar argi zehaztutako xedea da gertuko, sasoiko eta kalitatezko tokiko produktuen kontsumoa sustatzea. Ezaugarrietako bakar batek ere ez du eragozten nekazaritza-ustiategi batek 5 edo 10 NLU baino gehiago edukitzea. Ustiategietan landu eta ekoizten diren produktuek kalitate-betekizun batzuk eduki behar dituzte, eta haien merkaturatzeak gertukoa izan behar du, baina ez du tamainari lotuta egon behar, horrek berekin ekarriko lukeelako kanpoan uztea Nafarroako landa-eremuetan ustiategiak dituzten nekazari eta abeltzainetako asko.

18. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. puntuko c) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«c) Nekazaritzako elikagaien ekoizleak inskribatuta egon beharko du nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistroan, 8. artikuluan aipatzen den moduan».

Zioak: Definizioetan arautzen denez zer diren nekazaritzako elikagaiak, eta definizio horretan ekoizleen elkarrekin sartuta daudenez, erregistroak jaso beharko luke ustiatzearen titularrak ez diren elkarrekin inskribatzeko aukera.

19. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. apartatuko e) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«e) Salmenta Nafarroako lurralde-eremuan egin beharko da, edo, bestela ere, nekazaritzako elikagaien ekoizlearen ustiatzearen gehienez ere 100 kilometrorara. Horrelakoetan, dagokion erkidegoan produktu horiek merkaturatzeari buruzko araudia aplikatuko da. Muga horiek ez dira aintzat hartuko salmenta merkataritza elektronikoa bidez egiten bada».

Zioak: Argi geratu behar da salmenta Nafarroan egiten dela, baldin eta merkataritza elektronikoko enpresak egoitza soziala Nafarroan badu, edo Nafarroatik kanpo edukita saldutako produktua Nafarroako ustiatzearen batetik iristen bazaio erosleari (Nafarroaz kanpoko gordailurik gabe); hortaz, zuzenketa ez luke zentzurik izanen, edo, alderantziz, muga horiek kendu beharko liriteke salmenta Nafarroatik kanpo —edo, are, ustiatzearen batetik 100 kilometro baino gehiagora— egon daitekeen merkataritza elektronikoko bitartekari bakar batek eginez gero.

20. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Uste dugu ezin dela jardunbide egokien gida batzuen mende utzi nekazaritzako elikagaien kopuru txikiak merkaturatzeko higienari eta osasunari buruzko araudia betetzea. Lege bakoitza garatzeko erregelamenduetan ezarri beharko litzateke. Artikulu horren bidez nolabait ulertu daiteke kanal laburretan merkaturatzen diren eta tokiko ekoizpenekoak diren elikagaiak ez dituztela betetzen gainerako produktuek betetzen dituzten osasun-betekizunak, eta, hortaz, elikagai-segurtasunik gabeko elikagaiak izatea, eta hori bilatzen den helburuaren aurka doa.

21. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6. artikuluko 4. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«4. Produktu edo produktu mota bakoitzeko merkaturatuko den kantitate txikia dagokion osasun eta higiene arloetako jardunbide egokien gidan zehaztuko da, eta hori izanen da 1. eta 2. puntuetan adierazitako malgutasunean aplikatzen ahaliko den gehienekoa. Edozein kasutan, nekazaritzako 3 lan-unitate baino gutxiago dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatze-garatuak, kopuru txikien zehaztapenak berekin ekarriko du urteko ekoizpenaren % 20 gutxienez zuzeneko salmentara bideratu ahal izatea, eta salmenta horri zirkuitu laburrekoak gehituta, gutxienez, % 50era iristea».

Zioak: Kasuan kasuko jardunbide egokien zirkuitu horietan merkaturatzeko txikitat jotzen den kopurua zehaztu behar bada ere, uste dugu gutxienezko batzuk ezarri beharko liritekeela zuzeneko salmentaren bidez eta merkaturatze-zirkuitu laburren bidez merkaturatutako bolumenaz bezainbatean. Gure ustez, salmenten % 20 gutxienez zuzeneko salmentaren bidez egin beharko litzateke (azoketan, ustiatzearen bertan, online eskabideak...), eta gutxienez salmenten % 50era iritsi beharko litzateke azken kontsumitzaileari egindako zuzeneko salmenten eta merkaturatze-zirkuitu laburren bidezko salmenten arteko batuketara.

Horrela, merkataritza tradizionala edo zuzeneko merkataritza bultzatu nahi dira, banaketa handiaren kontra, foru-legearen xedeetako bat lortzeko asmoz: nekazaritza-ustiatzearen bideragarritasuna eta emaitza ekonomikoak hobetzea, ahalbidetze aldera nekazaritza-ekoizleen errenta igotzea salmenta-modu horiek sortzen duten balio erantsia handitzearen bidez, nekazaritza-ustiatzearen diru-iturriak dibertsifikatuta eta sistemak tokiko baliabideei lotuago eutsita.

22. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6. artikuluko 7. apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«Nekazaritzako elikagaien kopuru txikiak merkaturatzen dituzten nekazaritzako elikagaien ekoizleak erregelamenduz onartutako higienaren eta jardunbide egokien gidak aplikatu beharko

dituzte, eta agintari eskudunek horien erabilera eta aplikazioa oso-osorik egiaztatu beharko dute».

Zioak: Logikoa da gida horietako edukiak aplikatzea eskatzea kantitate txiki horiek merkaturatzean betekizun higieniko-sanitarioak malgutzen zaizkien horiei, baita horien erabileraren eta aplikazioaren kontrola ezartzea ere.

23. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«1. Nafarroako Gobernuak nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistro bat ezarriko du, eta bertan ezinbestean inskribatuko dira nekazaritzako elikagaien ekoizleak eta jarduera horretan aritzen diren bitartekariak. Erregistroak identifikatuko du operadoreak zuzeneko salmenta, hurbileko salmenta edo biak egiten dituen».

Zioak: Foru-lege honetako arauen pean egon diren operadore guztiak Erregistro horretan inskribatuta egon beharko lukete; inskripzioa ezin da borondatezkoa izan. Bestalde, Erregistroan inskribatzeak aukera emanen die 7. artikuluan jasota datozen ekoizle horiek sustatzeko eta ikusarazteko kanpainen onuradun izateko. Ez dirudi logikoa denik zuzeneko salmentaren eta hurbileko salmentaren jarduerak arautzea eta operadoreei ahalbidetzea beraiek aukera dezaten Erregistroan inskribatu nahi diren edo ez. Esparru horretan merkaturatzen duten operadore guztiak Erregistroan inskribatuta egoteak ahalbidetu beharko luke ikuskatu eta kontrolatu ahal izatea jarduerak betekizunak eta betebeharrak betetzen dituela, eta osasun- eta higiene-araudiaren malgutasunaren onuradun izan daitekeela. Kontu horiek guztiak foru-lege honetan jasota daude.

24. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8. artikuluko 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«1. Nafarroako Gobernuak nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistro bat ezarriko du, eta bertan inskribatuko dira nekazaritzako elikagaien ekoizleak eta jarduera horretan aritzen diren bitartekariak. Erregistroak

identifikatuko du operadoreak zuzeneko salmenta, hurbileko salmenta edo biak egiten dituen».

Zioak: Erregistroak jarduera hori egiten duten pertsona edo pertsona-elkarte guztiak jaso behar ditu.

25. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

9. artikuluko 1. apartatuko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«b) Eranstea a) letran adierazitako eskabideari berriazko jardueraren adierazpen bat, ekoizle edo bitartekari izatearen arabera, gutxienez honako informazio hau izan den duena:»

Zioak: Hobe da pertsonendako eta ekoizle-elkarteendako jardueraren adierazpenaren erregistro bat edukitzea, eta beste bat, bitartekarienez, erregistro horretan gardentasun handiagoa lortze aldera.

26. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

11. artikuluko 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«1. Nafarroako Gobernuak bereizgarri edo logotipo bat egiten du, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroan inskribatutako operadoreen eta produktuen identifikazioa eta informazioa errazteko. Bereizgarri hori lokaletako sarbideetan, bidegurutzeetan edo inguruetan erabiltzen ahalko da, seinalezatze sistema baten bidez, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera».

Zioak: Proposatzen dugu Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legea ez aldatzea, logotipoa errepideetan erabiltzea ahalbidetzeko, informazio gehiegi eta gidariei nahasmena eragitea dakartzalako.

27. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

IV. kapituluaren 14. artikuluko berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«14. artikulua. Zehapen-araubidea.

Foru-lege honetan araututako produktuen ekoizpenaren eta merkaturatzearen arloko arau-haustek honako arau-hauste eta zehapenen araubide hauen arabera zehatuko dira:

a) Kontsumo arloko arau-haustek zehatuko dira Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko ekainaren 20ko 7/2006 Foru Legearen IV. tituluan xedatutakoarekin bat etorrira.

b) Ekoizpenean abereen osasunaren eta higie-nearen arloko arau-haustek zehatuko dira Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen VIII. kapituluari xedatutakoarekin bat etorrira.

c) Lehen mailako ekoizleen eta kontsumitzaileen artean txikizkako salmenta edo zuzeneko salmenta egiten duten establezimenduetako osasun- eta higiene-arloko arau-haustek zehatuko dira Elikagaien segurtasunari eta nutrizioari buruzko uztailaren 10eko 17/2011 Legearen IX. kapituluari xedatutakoarekin bat etorrira».

Zioak: Beharrezkoa da zehaztea zein legeri egiten zaion arau-igorpena zuzeneko salmentan edo zirkuitu laburretan egindako ez betetzeengatik ezar daitezkeen zehapenen tipifikazioaren eta zehaztasunaren kasuan.

Uste dugu egokia dela jokabide tipikoa zehazteko arau-hausleak betekizunak, baldintzak, eginbeharrak edo debekuak —zehapen-arau hutsak— ezartzen dituen beste arau batera jotzea. Horri dagokionez, jurisprudentziaren arabera, arau-igorpena behar bezain beste zehaztuta badago baliozkoa da, eta horrela ez da urratzen lex certa delakoaren eskakizuna.

28. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«Lehenengo xedapen gehigarria. Osasun eta higiene arloetako jardunbide egokien gidak egiteko epea.

Foru-lege honetako 6. artikuluan aurreikusitako osasun eta higiene arloetako jardunbide egokien gidak egiteko epeari dagokionez, osasun eta landa-garapeneko agintari eskudunek idatziko dituzte foru-lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean».

Zioak: Lege-proiektuaren zioen azalpenean adierazten denarekin bat, "Nafarroako Parlamentuak, 2018ko azaroaren 19ko saioan, mozio bat onetsi zuen. Mozio horretan, Nafarroako Gobernari eskatu zion foru-dekretu bat gara zezala, malgutu zitezen zuzeneko salmentan edo merkaturatze-zirkuitu laburrean aritzen diren nekazaritza-ustiategi txikiak bete beharreko higie-ne- eta osasun-betekizunak, bai lehen mailako ekoizpenetan, baita nekazaritzako elikagaiak eraldatzean eta merkaturatzean ere". Higie-ne- eta osasun-betekizunak malgutzeko helburu hori aspalditik bete nahi da Nafarroan, baina orain arte ez da gauzatu. Hori dela-eta, garrantzitsua da epe bat ezartzea betekizun horiek malgutuko dituzten osasun eta higiene arloko jardunbide egokien gida horiek egiteko. Batez ere, ekoizleei begira, gida horiek gabe zuzeneko salmenta erabiltzeko gaitasuna mugatuta baitute, egungo araudia zorrotz aplikatzeak askotan hura eragotzi edo zaildu egiten duelako. Epe zehatz bat jarri ezean, gidak egitea ukitutako departamentuen borondatearen esku geratuko da, eta horrek arazoak eragingo ditu.

29. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

IV. kapituluaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«IV. kapituluua. Kontrol ofiziala eta zehapen-araubidea».

Zioak: Balizko arau-hausteen aurrean ondorio-rik ez duten kontrolak badaude, kontrol horiek hutsalak izan daitezke.

10-23/LEY-00001. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Foru Lege proiektua.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2023ko otsailaren 28ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2023ko urtarrilaren 30eko 14. Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/MOC-00018. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premia-tzen da gastu militarra gutxitu dezan eta diru hori gerraren ondorioak leuntzeko eta gizarte zerbitzu publikoak (osasungintza, irakaskuntza eta abar) sustatzeko erabil dezan.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita gastu militarra gutxitu dezan eta diru hori gerraren ondorioak leuntzeko eta gizarte zerbitzu publikoak (osasungintza, irakaskuntza eta abar) sustatzeko erabil dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, otsailaren 16ko (osteguna) Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Hilabete eskaseko tartearekin, bi egun kontra-jarri izan behar dira. Urtarrilaren 30a "Indarkeriarik ezaren eta Bakearen aldeko Eskola-eguna" da, Gandhiren oroimenez, egun horretan erail baitzuten. otsailaren 25ean urte bat beteko da Errusiak Ukrainaren inbasioa hasi zuenetik, zortzi

urteko etengabeko gatazkari buru emanez eta Minskeko akordioak ez bete ostean. 90eko hamarkadatik ez genuen gerra bat European, eta bazirudien gerrak gure gizarteetatik at zeudela. Baina Ukrainako gerrak gogora ekarri digu mendeetan zehar European gerra andana izan ditugula.

Gerra honetan bi mundu-potentzia daude aurrez aurre, Estatu Batuak-OTAN eta Errusia, zeinek lortu duten Europako gobernuak eta komunikabideak ere engaiatzea, eta herritarrok ere gerraren ondorioak pairatzen ari gara dela inflazioaren, dela produktu batzuen eskasiaren bidez. Edozein gerratan gertatzen den bezala, gizarte zibilak pairatzen ditu alderdirik ilunenak, alegia, heriotza eta hondamendia. Baina badago oraindik ere okerragoa izan den legatu bat: gerran parte hartu dutenen artean edo hura pairatu dutenen artean sortuko den gorrotoa.

Asko dira gerren kontra daudenak, baina haien ahotsak ez dira behar bezain garrantzitsuak, eta bonben zaraten pean isilpean geratzen dira. Eta hori ez da kezkatzen gaituen gerra bakarra. Gaur egun hirurogei gerra edo gatazka armatu baino gehiago daude mundu osoan barna, eta horien ondoriozko albo-biktima zibilak ere baditugu. Horiek guztiak ere gogoan, ahotsa goratzen dugu.

Gerra, hitzezko mehatxuak eta giza eskubideen urraketak goraka ari direnez, honako ebazpen proposamen hauek aurkezten ditugu:

- Nafarroako Parlamentuak gerrak arbuiatu egiten ditu gatazkak konpontzeko modu gisa.
- Nafarroako Parlamentuak giza eskubideen urraketak salatzen ditu, edozein dela ere haien jatorria, eta bereziki, emakume eta nesken gorpu-

tzen bortxaketak eta horiek gerra-arma gisa erabil-tzea.

- Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu su-eten bat lortzera eta negoziazioak hastera zuzendutako ahaleginak.

- Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu gerrak arbuiatzen dituzten guztiak, eta, ildo horretatik, babesa ematen dio Europak Errusia, Ukraina eta Bielorrusiako objektoreak eta desertoreak har ditzan abiatutako kanpainari.

- Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu gerretatik eta haien ondorioetatik ihesi doazenak, edozein dela ere haien jatorria edo erlijioa.

- Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du gatazka-eremura eta besteren batera edozein material militar bidaltzea.

- Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu egun Ukrainan bizi den gerraren lehen urteurrenaren harira eginen diren mobilizazioak.

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du gastu militarra gutxitu dezan eta diru hori gerraren ondorioak leuntzeko eta gizarte zerbitzu publikoak (osasungintza, irakaskuntza eta abar) sustatzeko erabil dezan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du klima-aldaketaren aurka borrokatzeko ahaleginak birbideratu eta justizia ekosozial global bat bultzatu dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 9an

Foru parlamentariak: Patricia Perales, Ainhoa Aznárez eta Marisa de Simón

10-23/MOC-00019. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Espainiako Gobernuak Eskubide Sozialen Ministerioaren bitartez onetsi duen 100 euroko hilabeteko laguntza –3 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familientzako– zabaldu dezan.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuak Eskubide Sozialen Ministerioaren bitartez onetsi duen 100 euroko hilabeteko laguntza –3 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familientzako– zabaldu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2023ko otsailaren 16ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Espainiako Gobernuak, Eskubide Sozialen Ministerioak bultzatutako familien lege berriaren harira, kontziliazioa laguntzeko prestazio esanguratsu bat abian jarri du. Hilean 100 euroko laguntza da, ardurapeko seme-alaba bakoitzeko, hiru urtera bitarteko hurrak dituzten familientzat.

Gure autogobernuaren ezaugarriak direla-eta, prestazio hori gure araudira atzeraeraginez egokitu behar da, Nafarroako familiei konparaziozko bidegabekeriarik ez sortzeko.

Jakina denez, Nafarroak Europako jaiotzetasarik baxuenetako bat izaten jarraitzen du; aitzitik, zahartzea bizkortzen ari da eta lan arloan belaunaldi-ordezkapenaren falta dago; hortaz, gure ustez, prestazio horrek hazkuntza eta kon-

tziliazioa samurtzen lagundu dezake eta lagundu behar du.

Erabaki-proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Espainiako Gobernuak Eskubide Sozialen Ministerioaren bitartez onetsi

duen 100 euroko hilabeteko laguntza –3 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familientzako– zabaldu dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

10-23/MOC-00020. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2023ko otsailaren 16ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko.

Joan den urtarrilean, “Estudes” azterlana argitaratu zuen Drogen eta Adikzioen Espainiako Behatokiak. Azterlanetik datu atsekabegarriak ondorioztatzen dira 14 urtetik 18 urtera bitarteko

nafar gazteen arteko alkoholaren kontsumoari eta adikzio berriei dagokienez.

“Estudes” azterlanaren arabera, 14 eta 18 urte bitarteko ikasleen % 73,9k haien bizitzan zehar noizbait alkohola edan dute. Inkestatutako gazteen artean, % 23,2k aitortu du azken denboraldi horretan noizbait mozkortu egin dela, eta % 27,9k binge drinking delakoa egin duela.

Azterlanaren arabera, 14,1 urterekin hasten da, batez beste, tabakoaren kontsumoa, eta kalamuarena, berriz, 14,9 urterekin. Inkestan parte hartu duten gazteen % 75ek dienez, kalamua “lortzen erraza” da.

Datu horiek guztiek berretsi egiten dute beharrezkoa dela administrazio publikoek esku hartzea adikzioen arloan prebenitzeko, kontzientziatzeko eta jarduteko, Nafarroako Gobernuko departamentuek batera eta zeharkakotasunez arituta, datu horiek gure gazteen artean gehiago areagotu ez daitezten.

Drogei eta Adikzioei aurrea hartzeko III. Planak (2018-2023) nafar gazteen artean drogei eta adikzioei nola aurrea hartu behar zaien jakiteko ildo nagusiak ezartzen ditu. Baina plan hori taxutzeko erabili ziren datuek okerrera egin dute plana idatzi zenetik hona. Azterlanean, Gazteak eta Osasuna Inkestako datuak erabili ziren, zeina 2014an egin baitzen. Tabakoaren kontsumoa 15,4 urterekin hasten zen; alkoholarena, 14,7rekin, eta kalamuarena 16,1ekin. Kontsumoari buruzko azken inkestaren datuekin alderatuz gero, kontsumoa potentzialki handitu da.

Erabaki-proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1- Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeke.

2- Jarri beharreko baliabideak jar ditzan eguneratze hori egiteko kasuan-kasuko berariazko programen, sentsibilizazio kanpainen eta nafar gazteei zehazki bideratutako beste programa batzuen bidez.

3- Aldaketa horiek Nafarroako Gazteriaren Institutuaren oniritziarekin egin daitezten, hori baita organo eskuduna eta zeharkakoa Nafarroan gazteriaren arloko politiketan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

10-19/MOC-00102. Mozioa. Horren bidez, Kultura eta Kirol Departamentua premiatzen da azterlan bat egin dezan, Nafarroako Futbol Federazioarekin lankidetzan, aztertze aldera kirol eta aisia instalazioei buruzko araudia betetzen ote den.

KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetu dadin Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Kultura eta Kirol Departamentua premiatzen baita azterlan bat egin dezan, Nafarroako Futbol Federazioarekin

lankidetzan, aztertze aldera kirol eta aisia instalazioei buruzko araudia betetzen ote den. Mozioa 2019ko abenduaren 20ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00108. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan irizpide geografikoa ken dezan jaioberrien eta haurren ospitalearteko lekualdaketetarako.

OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan irizpide

geografikoa ken dezan jaioberrien eta haurren ospitalearteko lekualdaketetarako. Mozioa 2022ko azaroaren 30eko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00012. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da jarrai dezan LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko Kattalingune zerbitzua ematen jarrai dezan, 2022ko abendura arteko kalitate-parametroak mantenduz edo hobetuz, horretarako behar diren giza baliabide eta baliabide ekonomikoekin hornituta.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita jarrai dezan LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko Kattalingune zerbitzua ematen jarrai dezan,

2022ko abendura arteko kalitate-parametroak mantenduz edo hobetuz, horretarako behar diren giza baliabide eta baliabide ekonomikoekin hornituta. Mozioa 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00010. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentua premia-tzen da Fitero-Cintruénigo-Corella-Castejón-Iruña autobus-zerbitzua berma dezan, egunean joan-etorria egiteko moduan eta hiru ordutegitan, 06:30ean hasita.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentua premia-tzen da Fitero-Cintruénigo-Corella-Castejón-Iruña autobus-zerbitzua

berma dezan, egunean joan-etorria egiteko moduan eta hiru ordutegitan, 06:30ean hasita, eta 2023ko otsailaren 3ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

10-23/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko otsailaren 9an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru

parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2023ko otsailaren 6ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2023ko otsailaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2023ko otsailaren 6ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 108. eta 148.5 artikuluetan eta seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamena Erregelamendu Batzordean izapidetu dadin premiazko prozedurari jarraikiz.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat ezartzea, **2023ko otsailaren 27ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias